



Prentsa oharra: “IV. ENKANTE NAZIOANALA” eta “MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIA” (maiatzak 18)

LATXA ARRAZAKO AHARI GENOMIKOEN IV. ENKANTE NAZIOALA, IGANDEAN, MAIATZAK 18, GORRITIN (LARRAUN) IZANGO DA

Ekitaldia Larraun eta Lekunberriko Udalak eta ASLANak antolatu dute, eta Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin bat egingo du.

Aurten ere Mendialdeko Azoka Ibiltaria eta Ahari Genomikoen Enkante Nazionala egun berean izango dira Larraungo haranean, Gorritin hain zuzen ere. Larraungo Udalak 2022tik bultzatzen du ekitaldi hau, ASLANA elkartearekin elkarlanean. Hauekin batera, beste erakunde batzuek ere laguntzen dute, hala nola Plazaola Partzuergo Turistikoak, Cederna Garalurrek eta Habelarte Elkartek.

Enkantearen aurreko edizioen arrakasta eta Mendialdeko Azoka Ibiltariak hartu duen ospea (6. edizioa aurten) ikusita, udalaren apustua irmoa da eta bi ekitaldi hauek eskualde osoko azoka eta ekitaldien egutegian finkatzea espero du.

IV. Enkante nazionala

Horrela, aurten ere, Larraungo Udalak bere baliabideak azokaren esku jarri ditu, enkantea berriro arrakastatsua izan dadin eta Euskal Herri osoan erreferente bihurtu dadin.

Helburu horretan, latxa arrazaren hobekuntza genetikoan espezializatutako ASLANaren ((Nafarroako Ardi Latxa Hazleen Elkartea) laguntza teknikoa eta profesionala jaso du antolakuntzak. “ARDI” POCTEFA proiektuaren bidez ASLANak lortu du bere hautapen-eskeman ebaluazio genomikoaren metodologia berritzailea sartzea, eta horrek hobekuntza erritmoan eta lan egiteko moduan aurrerapenak ekarriko ditu.

Gorritin, datorren igandean, maiatzak 18, balio genetiko handiko ahariak enkantean jarriko dituzte, edozein abeltzainek eros ditzan, eta, horrela, Latxa arrazaren hobekuntza jendarte osoari zabalduz.

Ekitaldia 10:00etan hasiko da, enkantean jarriko diren ahari genomikoen erakusketarekin, eta hortik aurrera erosi ahal izango dira enkanterako txartelak 12:00ak arte. 12:40ean hasiko



LARRAUNGO UDALA
Bagoaz batera



Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri





da enkantea.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria: Larraunen txanda

Larraungo Udalak lekukoa hartuko dio Betelukoari, honek, pasa den apirilaren 13an, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 6. edizioari hasiera eman baitzion. Oraingo honetan, Gorriti herriak hartuko du azoka datorren igandean, maiatzaren 18an.

Gogoratu behar da, 2025an, apirila eta azaroa bitartean Mendialdean egingo diren 5 azoketan, nekazaritzako elikagaien eta artisauen postuez gain, jarduera eta ekitaldi osagarriak ere izango direla. Helburua publiko berriak erakartzea eta egonaldia luzatzea da, erakusketak, tailerrak, erakustaldiak, dastatzeak, bisita gidatuak eta abar eginez. Horrela, bisitariek gure lurraldea hobeto ezagutzea eta bertako baliabideez gozatzea nahi dugu; eta, jakina, zerbitzu gehiago kontsumitzea eta tokiko produktuak erostea.

Hurrengo azoketarako egutegia, Gorritikoa pasatuta, honako hau da:

- Ekainak 1: Goizueta + Emakume artzainen eguna + Talo Eguna
- Irailak 14: Leitza + XIX. Talo eguna
- Azaroak 2: Jauntsarats (Basaburua) + Gaztain eguna

Bertako produktuak eta artisautza

Guztira 29 postu izango dira Gorritiko azokan. Nekazaritzako elikagaien 16 postu: gazta, ezti, taloa, hestebeteak, haragia, ogia, arrautzak, etab. Eskaintza honi, eskualdeko artisauen 13 artisautza postu gehitu behar zaizkio: zura, bitxiak, haurrentzako ipuinak, zeramika, metala, ehungintza, etab.

Modu iraunkorrean eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izango dugu Gorritin, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, hau bezalako landa-eremu hauetako ingurumenarekin, paisaiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin kontziente eta arduratsu den kontsumoa sustatu nahi da.

Azokaren jende-aurreko ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da.



LARRAUNGO UDALA
Bagoaz batera



Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri





Antolakuntza lanetan Mendialdeko 10 udalek parte hartzen dute (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu Imotz, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri), Cederna Garalur eta Plazaolako Turismo Partzuergoaren koordinazio teknikarien laguntzarekin, baita Mendialdeako HABELARTE baserritarren elkarte eta, zonaldeko Araizko Zaporeak LeitzEKO, zonaldeko hezkuntza zentroak eta “Bertatik Bertara Dinamika” bezalako kontsumo elkartearen laguntzarekin ere.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du

Mugiro-Larraun, 2025ko maiatzaren 9a

Ahari genomikoen enkantearen inguru informazio gehiago izateko **Maite Lasarte**, ASLANAko teknikariaren telefonora deitu dezakezu: **636347472**.



LARRAUNGO UDALA
Bagoaz batera



Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri

